

Eilaskide ordezeko hori:

Gaur bertan atera du Hezkuntza Sailak (hezkuntza.net-en) beren ikastetxeetan finkatzeko eskubidea duten ordezekoen kopurua, izen abizenak eta azken finkatuaren puntuazioa kidego guztietan.

Finkatzeko eskubidea izateak ez du esan nahi irakasle horiek finkatuak izango direnik, ikasturte honetan okupatu dituzten plazak hartuta egon daitezkeelako (lekualdatze lehiaketan edo beste funtzionario batek hartuta). Urtero-urtero, sistema txar honek uzten du heren bat (%30 inguru) finkatu gabe, eskubidea izan arren.

Hala eta guztiz ere, ordezeko guztiok parte hartu behar duzue aurten Esleipen elektronikoa, finkatzeko eskubidea izan ala ez, eta prozesu osoa bukatu arte (abuztuaren 31an) ez da jakingo nor izan den finkatua eta nor ez.

Hor duzue, kontuak ateratzeko, finkatzeko eskubidea dutenen kopura kidegoz-kidego, eta azken finkatuaren zerrendako postua eta puntuazioa. Ondo izan.

Pertsona	Taldea
568	1. Maisu- maistrak
423	2. Bigarren hezkuntza eta EOI
67	3. Lanbide heziketako irakasle
4	6. Arteen irakaskuntza
10	7. Musika irakaskuntza

Posizioa	Taldea
669 (78,75)	1. Maisu- maistrak
520 (103,75)	2. Bigarren hezkuntza eta EOI
284 (96,75)	3. Lanbide heziketako irakasle
135 (54,75)	6. Arteen irakaskuntza
15 (126,00)	7. Musika irakaskuntza

2011-08-10

STEE-EILAS